

Itzuli, Atx Teatroa eta El Punto Guneak aurkezten dute

OIHANA

Sorginak ote dira?



OIHANA

SORGINAK OTE DIRA?

EUSKARAZ



DENENTZAT
12 URTETIK GOITI



50 MINUTU
ANTZERKIA ETA DANTZA



OHOLTZA 6 X 4 X 6M



ESTREINALDIA

2022KO OTSAILAREN 6A

SCÈNE NATIONALE DU SUD AQUITAIN,
QUINTAOU ANTZOKIA, ANGELU, LAPURDI

OIHANA

INSPIRAZIOA

“Language shapes consciousness,
and the use of language to shape
consciousness is an important
branch of magic.”

Starhawk, *Dreaming the Dark*

Starhawk idazle eko-feministak hitzak ezarri zituen intuizio baten gainean. Hau da, hizkuntzak duen gaitasun magikoa, konzientzia, eta haratago joan ezker, errealitatea ere moldatzeko. Iturri beretik dator zientzia-fikzio utopikoaren beharra. Ez badugu imaginatzen ahal etorkizuna positiboa izaiten ahal dela, zertarako borrokatu honen alde?

Oihana ibilbide errituala da, erdigunean, feminismoa, elkartasuna eta maitasuna pausatzen dituelarik. Biharamun eguzkitsu batekin amesten dugulako.

OIHANA SINOPSISIA

Etorkizun hurbil batean, Oihana, Lur bere amarekin bizi da. Mendeetan zehar, jakintzak eta ohiturak, familiako emakumeen artean transmitituak izan dira dantzaren bitartez. Baina, katea moztu egin da. Oihana, ez da gai hizkuntza hau eta dakartzan sekretuak ulertzeko. Gau batez, Oihana, ametsetan bidaiatzen ahal duela ohartzen da. Orduetik, ausardiarekin eta kuriositate handiz, bere iragana deskubritzera abiatzen da eta honekin batera, hizkuntza misteriotsu hau hitzegiten duten emakumeak ezagutzera.

OIHANAREN

INTENTZIOA

IKUSKIZUNA

Oihanak, dantza eta antzerkia uztartuz, transmisioa eta identitatearen eraikuntzari buruz hitzegiten digu. Gai unibertsalak izanki, publiko zabal batengana iritsi nahi du eta 10 urtetik aurrerako pertsona orori gomendatua dago.

Gure istorio honetan, dantzak, adierazpen kanal bat izateaz gain, jakintza eta sorginen boterea izatera heltzeko behar den formula magikoa irudikatzen du. Ideia honek euskerarekiko duen paralelismoa nabaria da, belaunaldi bat igaro behar izan bait zen transmisioa eten eta hizkuntza guztiz galtzeko. Beraz, istorio hau euskeraz kontatuz, zailtasun guztien gainetik iraun duen transmisioa omentzen dugu; baita gure hizkuntzen aniztasun eta aberastasuna ere. Hauetako bakoitzak, mundua ikuspuntu ezberdin batetik ikusteko aukera ematen digu, hauen irudimen indartsuari esker.

TRANSMISIOA

Etxean, nire ama hizkuntza Euskera izan arren, ez nuen asko baliatu txikia nintzelarik. Horrela, ahaztu egin nuen. Pixkanaka ausardia galtzen hasi nintzen, azaldu nahi nuena adierazteko gai ez nintzelako eta gaizki egingo nuenaren lotsa sortzen zitzaidalako. Hala ere, egun batean lotsa honen aurka tinko borrokatzea erabaki nuen, aspaldiko helburuen bila. Euskera berrikasten hasi nintzen, niretzat berebiziko garrantzia zuelako eta gaur, euskerazko ikusgarriak sortzearen aldeko apustua egiteko gai naiz. Nire amaren hizkuntza delako eta euskerak mundu honetan denboran zehar izaten ari duen bidai honen parte izan nahi dudalako.

Oihanaren istoriak nire bizipenetatik edaten du. Protagonistak, bere izatearen parte bat falta duela sentitzen du eta kezka honek bere baitan ikertzera bultzatzen du. Ikusgarrian, dantza zein sorginkeria, galduta dauden bi transmisio bide dira. Bata, hizkuntza bat da, bestea berriz, kultura bat, hau da, mundua ikusteko ikuspegi bat eta aldi berean talde bilakatzea ahalbidetzen diguten jakintza agortezina. Oihanak, denboran zehar bidaiatzen zein dantza egiten ikasten du, bere errealitatetik urrun dauden egoeretan sakon murgilduz eta ispiluan bere burua begiratzean, beretzako ezinbestekoa dena deskubrituz.

ANTZERKIA, ZIENTZIA FIKZIOA ETA UTOPIA

Oihanaren istorioa etorkizunean kokatzen da. Fikzioak imaginazio espazio amaigabe bat eskeintzen digun bezala, zientzia fikzioak dimentsio berri batean kokatzen gaitu. Eta egun batean egia bihurtuko balitz? Gehienetan, pentsakera honek distopiarara eramaten gaitu. Oihana obran, txanponaren kontrako aurpegia aukeratzen da. Oihana, berekoikerian oinarritutako mundu batean, bere identitearen bila ari da etengabe. Itota, laguntza eskatzen du, bere iraganaren parte diren emakumeak bera erreskatatzeko prest agertzen direlarik.

Oihana, gazteengandik hasita helduenentzat zuzendutako ikusgarria da eta sortzaile bezala, ikusleari istorio alaiak eskeini nahi nizkioke; argia proiektatzen duten istorioak. Eskeini nahi dudan antzerkiak ikuslegoa aktibatzea du helburu. Hau lortzeko, heroiarekin identifikatzea prozesuaren parte garrantzitsua da; Oihana emakume gaztea da eta sinetsi nahi dut denentzat ariko dela. Protagonistaren abenturan murgilduz eta berarekin ikasiz, norberaren burua eta Oihanaren bizipenen arteko paralelismo magikoak sortuko ditugu. Zientzia fikziozko istorio baten amaiera alai bat aukeratzea, obrako pertsonaientzat esperantzako mundu bat marraztea da, baina aldi berean, ikuslearen bizipozen iturria ere izan daiteke.

AURKEZPEN ESZENIKOA

Planteamendu eszenikoaren enborra, gutxi gorabehera hiru metroko altuera duen egitura metalikoa izanen da. Honek, familia etxeko unibertsoaren irudikapena egiteaz gain, oihan sakratuan biziraun duen azken zuhaitza eszenaratzen ere lagunduko du.

Etorkizunaren irudikapena, materia garden eta apainketa urriekin plazaratzen da, ildo minimalista jarraituz obran zehar.

Argiei dagokienez, urdin tonu hotzak eta su erritualen kolore beroak uztartuko dira, kontraste biziak eraginez.

Azkenik, soinu eta irudiari dagokionez, bi unibertsoen arteko etengabeko bidaia izango da, eguneroko bizipen emozionaletatik sustrai misterioetsuetako ametsetara; milurteko oihanetako argiguneetatik etorkizun digital hotzera.

OIHANEAN

NORTZUK GARA?

ITZULI

2017an sortua eta Baionan kokatua, Itzuli Konpainiak antzerkiak sortzen ditu, euskeraz, haurtzarotik goiti. Konpainiaren lanean, mediazioa erdigunean ezartzen da, antzerkiaren pasioa hedatzeko eta publikoa hurbilagotik ezagutzeko.

Ikusgarri bakoitzean diziplinak nahasten ditu. Adibidez, bideoa *Behin Bazen internet* obran (2018), edo musika *Erromako Zubia* ipuinean (2020). *Oihana* proiektuak (2022) antzerkia eta dantza lotuko ditu zientzia-fikzioan.

ATX TEATROA

Atx Teatroa Bilbon sortu zan 2010ean. Euskal antzerkia egiten dogu, gure hizkuntzan, gure herrian eta gure egungo gizartearentzat. Eguneroko euskal jarduerak soilik, euskal kulturea dakar; eta euskalkultureak soilik, geure buruak begiratzeko ispilu bat. Kulturearen balorea gainbeheran doan mundu globalizadu honetan, kulturearen zentzua, beharizana eta erabilgarritasuna mahai ganean jarri gura doguz. Edertasun eta perfektuen mundu honetan, ilunean dagoana kanporatu nahi dogu. Mundu distopikoak, arrarotasunak, minak, iluntasunak, zatarrak, zikina... argira atara ikusleek gurekin batera atx egin daien. Oinarrizkoa, instintua, sena... kanpora atera nahi doguz. Benetan inportantea dana, benetan gure sustraiak dagozan lekua, apaingarri barik, kutsadura barik... Atx hareetatik be, tresnak sortzen dira, bizirauteko erremintak, oinarrizko premiak asetzeko baliabideak... Ez dago atxak bezain primitiboa dan beste ezer, ezta horrenbeste tresna, babesleku eta baliabide emoten dauazan beste ezer be.

ATX Teatroa antzerki konpainia bat baino gehiago da. Ikuskizunak sortzeaz gain, bestelako zerbitzuak be eskaintzen deutseguz beste konpainia eta eragileei.

<https://atxteatroa.eus/>

EL PUNTO GUNEA

EL PUNTO GUNEA „Nafarroako sormen zentroa ” artista ezberdinen beharizanen eta interesen ikuspuntu berri batetik sortzen den lekuaren arazoa konpontzeko parte bat da. Diziplina artistiko ezberdinetako eta hauek heziketarako eta hezkuntzarako duten gaitasunerako tresna modura bakarkako eta taldeko garapenaren onerako. Arte eszenikoekin harremana duten biztanleen zati bati erantzuna emateko da, lanean eta prestakuntzan elkarbizitza komun baten aldekoa.

“Arimak amets egiten duenean antzezlan, antzezleak eta auditoriuma da” Joseph Addison

Dantza, musika, zirkua, antzerkia, aurkezpenak.

<https://www.elpuntogunea.com/eu>

MARYSE URRUTY

IDAZLEA ETA ZUZENDARIA

Maryse Urrutyren lotura antzerkiarekin hasi zen lizeoan, Antton Lukuri esker.

Gero, Zientza politikoak ikasi zituen baina taularen deia berriz entzun zuen eta L'Ecole du Jeu-Delphine Eliet antzerki eskolara joan zen. 2015 an, 13R3P konpainia sortu zuen.

Frantziako iparraldean eta han Il était une fois l'Internet / Behin Bazen Internet eta Bureau des Exils ikusgarriak atera zituen, bai aktore, idazle eta taula zuzendari gisa.

2017 an, Euskal Herrira itzuli zen eta Cyranoren pertsonaiari gorputza eman zion Hecho en Casa konpainiaren euskarazko bertsioan. Orduetik, mugaren bi aldetan ari da, Atx Teatroa (Bilbo) eta Hika Teatroa (Donosti) konpainiekin ari da baizki eta Entre les Gouttes eta Itzuli (Baiona) konpainiekin.



BÁRBARA RIVAS

AKTOREA

Barbara Rivas (Zumarraga, 1987) Antzerki fisikoko ikasketak Madrileko RESADen eta Londreseko Rose Bruford College-en egin ditu. Euskal Telebistan egin zituen bere lehenengo lanak; Goenkale eta Goazenen besteak beste. Antzerkian Cyrano obran dabil lanean Baionako Hecho en casa konpaniarekin euskeraz, frantzesez eta gazteleraz antzezten. Bestalde, Arimaz konpaniarekin 3.urtez Donostiako ikastetxeetan bullying-ari buruzko antzerki-tailerrean murgilduta eta Oihana ikuskizunaren sorkuntzan Itzuli konpaniarekin.



ARANTXA HIRIGOYEN

AKTOREA

Irakasle gisa lanean ari zelarik, hezkuntza arloa eta antzerkigintza bereganatu eta uztartu zituen hainbat urtez. Irakaskuntza utzirik 2019az geroztik Axut ! Kolektiboko kide da. Hezkuntza artistikoa du eremu nagusia, ikastetxeetan tailerrak proposatuz, kudeatuz eta proiektuak gauzatuz, antzerkia eta hezkuntza bi mundu berezi horiek elgarri lotuz, gazteekin eta euskaraz.

2001ean AMA-2 taldea sortu zuen Maialen Fauthoux-ekin. « Tripakiak », « Amakiak » eta « Amatur » obrak aurkeztu zituzten.

Philippe Albor-ekin Haurrock haur kantari taldea sortzeaz gain, ikusgarriak proposatzen dituzte haur gazteendako.



JOANA OLASAGASTI

AKTOREA


Kabareta eta Dantza garaikidean ari da. Bartzelonan ikasi zuen Anna Sanchez -en Varium eskolan. Dantza, antzerkia, zirkoa eta perfortmantzak batzen zituzten proiektuetan aritu da lanean. Dantza inklusiboa (Denei zuzendua den dantza) deskubritzen du Maylis Arrabit eta Adam Benjamin koreografoei esker. Euskara, frantsesa, katalana, espaniola eta ingelesa mintzatzen ditu. Interes handia du gizakiengan, orduan arte diziplina ugariak eta adin eta egoera ezberdinetako pertsonekin proiektuak sortzeko gogoia du. Ipar Euskal Herriko irrati eta telebistan ere lan egiten du animatzaile gisa. Bartzelonan Willi Dorner, Els Malnascuts eta Oriol Escurcell konpanietan aritu da. Eta Euskal herrira itzuli denetik konpania ezberdinekin ere ari da, haien artean : Mike Angels, Zarena Zarelako, Ezeq Le Floc'h, Batcharte Dantza eta Itzuli.



PAULA OLAZ

MUSIKARIA

Paula Olazek zinema, telebista, antzerki eta bideojokoetarako banda sonorak egin ditu. Berklee College of Music-en egin zituen ikasketak eta cum laude aipamena jaso zuen graduondokoa. Aldi berean neuropsikologia klinikoko ikasketak egiten ditu, non psikologia kognitiboan espezializatzen den cum laude aipamenarekin. Pelikuletan egiten du lan (Handia, Pascal Gaigne-ri banda sonora onenari Goya), bideojokoetan, laburmetraietan, dokumentaletan, antzerkian, eta baita dantzan ere. Astronomiazalea eta unibertsoko soinu munduan ikerlari, 2017 urtean Londreseko Air Studio famatuan Europako Espazio Agentziarentzat (ESA). Gainera, Larrotxenen (Donostia) ematen ditu teknologia musikala eta banda sonorei buruzko klaseak eta EITBn egiten du lan musika eta zientzian aditua bezala.



FRANCISCO DUSSOURD

ESZENOGRFOA

Fran Dussourd artista, hainbat diziplinetan ezaguna da ; ikusgarrigintzan aditua, eszenografo, antzerkilari edota jantziegile gisa ere aritua da. Arte plastikoak ere lantzen ditu, instalazioa eta performantzien bitartez.

Bere sentsibilitateak, fintasun estetikoak, ausardiak eta umore garratzak eragin handia dute bere lanean. Beti jakin-nahian, bere burua berriz asmatzen du zerumuga eta teknika berrien bila.

Denborarekin, bere begirada, sentsibilitatea eta detaileekiko arreta, bere lanaren sinadura ikur bihurtu dira.



ENEKO GIL


KOREOGRFOA

Errenteria, 1985.

Hispaniar Filologian Lizentziatua. Kukai Dantza Konpainiako kidea konpainiaren sorreratik. Bertan nazioarteko koreografoekin lan egiteko aukera izan du, besteak beste, Marcos Morau, Sharon Fridman, Cesc Gelabert, La Intrusa Danza, Jone San Martín, etab. Horrez gain beste hainbat koreograforekin lan egiteko aukera izan du: Asier Zabaleta, Mikel Aristegui, Rosie Herrera, Michael Miller, etab. 2009. urtean "Dantzari Bikainari saria eskuratu zuen Madrilgo Koreografia Lehiaketan *Bihar jaio nintzen* ikuskizunagatik.

2019. urteko Max Sarietan izendatua izan zen Gizonezko Dantzari Onena sailean *Erritu* ikuskizunagatik.

Gaur egun ere Hika Teatroarekin, Myriam Perez koreografoarekin, Koldo Arostegi koreografoarekin, Dantzaz Konpainiarekin, Bilaka Kolektiboarekin, etab. dihardu lanean sortzaile eta dantzari bezala. Horrez gain, dantza irakaslea ere bada Villabonan eta Usurbilen.



OIHANAREN

FITXA TEKNIKOA

Zuzendaritza: Maryse Urruty

Antzezleak: Barbara Rivas, Arantxa Hirigoyen, Joana Olasagasti

Soinu espazioa / musika: Paula Olaz

Eszenografia: Francisco Dussourd

Koreografia: Eneko Gil

Argi sortzailea: Oihan Delavigne

Zuzendaritza teknikoa: Mathias Goyeneche

Teknikariak: Tom Laré eta Ieltxu Ostolaza

Jantziak: Francisco Dussourd

Ekoizpena: ATX Teatroa, El Punto Gunea eta Itzuli

Banaketa: ATX Teatroa

Laguntzaileak: Euskal Hirigune Elkargoa, Euskal Kultur Erakundea, Hego Akitaniako Eszena Nazionala, Pireneo-Atlantikoetako Departamendua - Mikro proiektuak, Pireneo-Atlantikoetako Departamendua-Kultura, Baionako Herriko Etxea, OARA, Chimères Antzokia, Hendaiako Udala, UPCP-Métive, URFR Moulin du Marais, Itzuli, Atx Teatroa, El Punto Gunea.

OIHANAREN

BALDINTZA TEKNIKOAK

ESKATZEN DENA

6x4x4m *

Ikusgarria teknikoki autonomoa izaten ahal da (soinua eta argiak)

BIRAN

5 pertsona (3 antzerkilari + taula zuzendaria + teknikari bat)

Muntaketa eta desmuntaketa : 4 ordu bakoitza.

2 emanaldi emaiteko gaitasuna egun berean.

**moldagarria*

HARREMANETARAKO



Banaketa

Naia Muñoz Murua
banaketea@atxteatroa.eus
00 34 657712844



Konpainia

ITZULI Konpainia
Glain Etorbidea 11
64100 BAIONA

Proiektuaren arduraduna
Maryse Urruty

00 33 6 79 83 25 19
itzulikia@gmail.com